

Herri ekimenaren alde

Jakinen webgunean, Joxe Azurmendiren lana biltzen den atalean, jasota dago Lorea Agirrek Azurmendirekin egindako elkarrizketa luze eta mamitsu bat, aukera ematen duena haren lanera hurbiltzeko eta haren pentsamenduaren oinarriak nondik nora ibili diren ezagutzeko. Azurmendiren idazlan guztiak ere bertan daude, eskura, gehiago sakondu nahi duenarentzat. Egunotan elkarrizketa hori berriro irakurri dut, Euskal Herriko pentsalari handienetako bat hobeto ezagutzeko interesarekin, gogoan oraindik duela hilabete batzuk, azkenekoz harekin egoteko aukera izan nuenean, esan zuen zerbait: «Gure belaunaldiak egin duenari jarraipena ematea egokitzen zaizue, bide berari segiz edo hura aldatuz; hori zuen erabakia izango da, zuek neurtu beharko duzue egoeraren arabera». Izan ere, Joxek hori ere irakatsi zigun, kontua ez dela lezioak ematea eta besteei esatea zer eta nola egin behar duten; kontua dela zure pentsamenduak bide ematea besteek berea martxan jar dezaten. «Ur-jauzi sistema» deitzen dio horri aipatutako elkarrizketan, saiakera zergatik idazten duen galdetuta:

Sinesten dudalako ur-jauzi sisteman. Hau da, norbaitek irakurriko nau eta haren burua martxan jarriko da. Ez dut esan nahi nik irakatsi diodala, ez. Norbaitekin hizketan ari garenean, edo norbaiten kontra idazten ari garenean, edo erreferentzia pertsonal bat daukagunean, kasik beti gure ideiak etortzen dira. Alegia, nire ideiak ez dira nireak. Ez dira propietate bat. Baina nire ideiak norbaitek irakurtzen ditu, eta haren ideiak martxan jartzen dira.

Horixe izan da itzaltzen ari zaigun belaunaldi horren bidea. Ezagutu zuten aurretik zegoena, eta batez ere ezagutu zuten aurrekoek egin izan ez zutena, «herri puskatu» honen hutsuneak eta ezinak, debekuak gutxitutako euskal kultura bateko katebegi inportantea izan baitira, gaur egun duguna begiratzen badugu. Aurreko belaunaldi horrek euskalgintza, kulturgintza, herrigintza berpiztu zituen, eta gaur egun aurrera egiteko ditugun tresnak josteari ekin zion. Euskararen

beharretatik abiatutako militanteak izan dira haien bizitza osoan, eta utzitako emaitza benetan izan da aparta. Eta oilarkeria handirik gabe, domina bila ibili gabe egin dute lan, behar izan beste. Hobe genuke horretaz ere zerbait ikasiko bagenu ondorengook.

Belaunaldi horretan, maisu handienetakoa Azurmendi izan da. Uste dut zalantza gutxi dagoela euskaldunen artean horretaz. Hark zuzenean parte hartu edo ez, euskalgintzako azken berrogeita hamar urteetako proiektu askoren atzean ikus daiteke haren ikuskera, haren pentsamendua. Bera ez zen izango proiektu askotan ibiliko zena eguneroko lanean, baina bai emango zuen ahal zuena hura abia zedin: partekatuko zuen bere mundu ikuskera hartan buru-belarri ari zirenekin, proiektuen atzean edo oinarrian dagoen pentsamendua sortzen lagunduko zuen. UZEI, UEU, *Euskaldunon Egunkaria*, Elkar, Jakin bezalako proiektuekin engaiatuta ikusi genuen Joxe, bereziki azken urteetan Elkarrekin eta Jakinekin. Azken bi horiek fundazio izatearen atzean dago haren pentsamendua –herri ekimenean ardaztutako kulturgintza, sortutako erakundeak iraunarazteko moduak jarritarri–, eta bietako patronatuetako kide izan zen amaierara arte. Lotura zuzena izan zuen Elkar Fundazioarekin; Jakin, berriz, haren etxea izan zen, hala esan izan digu behin eta berriz. Herri ekimenean sinetsi izan zuen eta haren sustatzaile porrokatua zen. Herriaren beharren aurrean antolatu eta erantzunak sortzearen aldeko izan zen, eta argi zuen estatuari, aginte politikoari, herri ekimen hori sustatzea zegoikiola, ez egiturak sortzea: «Estatuak ahalik eta aparatu txikiena eduki behar du, eta ahalik eta laguntza handiena eman behar die gizarteak berak sortzen dituen erakundeei».

Azurmendik bere pentsaera lurrera ekartzen zuen, haren joera ez zen «lezioak ematea»; pentsaera partekatu egiten zuen ingurukoekin –beti izan zen taldekoa–, eta lurrera ekartzen zuen ekimen praktikoaren bidez, gauzak eginez eta lanaren bidez.

Maisu handi eta umila izan da Joxe; zalaparta handirik gabe hil da, hala nahi izan zuen, baina lan izugarria utzi digu, gogoeta eta ekimen askoren ernamuin izango dena hurrengo belaunaldietan ere. Badugu nondik elikatu, nondik abiatu gure gogoetak gaur egun euskarak eta euskal kulturak, Euskal Herriak, behar duena eraikitzen segitzeko.